

# ARRAZTALO

Kontatzeko moduko  
esperientzia



# Hitzaurrea

Gurea bezalako elkarten artean bolondres hitza asko aipatzen da, gaixoen aldeko borondatezko lana, bolondresen ahalegina, borondatea orokorrean.

Gu ordea, Arraztalo Elkarte osatzen dugun pertsonak, ez gara bolondresak eta argi eta garbi esaten dugu. Ez gaude hemen nahi dugulako, ez gaude gogoz edo borondatez. Gure senideek, gaixo psikikoek, behartzen gaituztelako gaude hemen.

Familian eta gizartean gure ardura direlako, bat garelako eta guztiok komunean bizitza bat dugulako gaude hemen.

Eta gauza berbera gertatzen da gure gizartearekin, gure ingurunearekin. Gizarte erantzukizun bat dugu eta ezin dugu inor kanpoan utzi, baztertuta. Pentsamolde honekin lan egiten dugu Arraztalo Elkartean, integrazioa, elkartasuna eta duintasuna lortzeko.

Duten gaixotasuna kontuan hartuz, berreskuratu daitezkeen pertsonak direla pentsatu behar dugu. Ez ditugu kronikoak bezala irudikatu behar edo are okerrago, etorkizunik gabeko pertsonak direla pentsatu.

Txosten honekin Arraztalo Elkartean egiten dugun lana laburbildu nahi izan dugu, nola lan egiten dugun eta zergatik egiten dugun horrela lan azaltzeko. Gainera, gaixo psikikoen integrazioan beraien proiektu propioa martxan jarri nahi duten horientzat gida modukoa izatea ere nahi dugu. Tokian tokiko elkarten sare baten parte izatea gustatuko litzaiguke, eskualdeko sare bat, gertukoa, bakoitzaren esperientziak elkarbanatzen dituen.

# 1. Sarrera

## ZER DA ARRAZTALO?

Arraztalo gaixotasun psikikoak dituzten Oiertzungo pertsonen lan eta gizarte integrazioa lortzeko proiektua da. Proiektuan, gaixoek eta beraien familiek parte hartzen dugu, baina elkarrearen atek parez pare irekita daude lagundu nahi duenarentzat. Eta sortu ginenetik pasa diren lau urteetan horrela izan da, tarte horretan gure

Irabazi asmorik gabeko elkarte bat gara. Familien eta gure inguruko pertsonen lanari esker funtzionatzen dugu.

ekintzak, bilerak eta esperientziak inguruko beste elkarteekin, gizarte langileekin, udaletxeko zinegotziekin, kolektibo ugarirekin eta elizarekin elkarbanatu baititugu.

Gure proiektua 2010eko urtarrilean jarri genuen

martxan ofizialki, baina 2008tik ideia lantzen aritu ginen. Gaixotasun psikikoa duten pertsonen lan arloan zuten hutsunea betetzekotan hasi ginen batzartzen.

## ZER LORTU NAHI DUGU?

Arraztalo Elkarrearen oinarrizko helburua beraien bizitzan zehar gaixotasun psikikoak (eskizofrenia, nahasmendu bipolarra, ...) garatu dituzten oiertzuarrak gizartean eta gure inguruko enpresetan integratzea da. Gure estrategia bi lan ildotan banatua dago:

1. Duintasunez eta era jasangarri batean gaixoak lan munduan duten integrazioa bultzatzeko lan postuen sorrera.
2. Gaixoen bizitza bere osotasunean hobetzeko ekintza psikosozialen garapena.

## ZEIN DA GAIKO PSIKIKOEN EGOERA OIARTZUNEN?

Oiartzunen bertan 80tik gora gaixo psikiko daude. Hauek laguntza eskatu dutenak besterik ez dira.

Gaixoen egoerak sentimendu batzuk sorrarazten dizkiete: ilusio falta, gutxiagotasun sentimendua, autoestimu baxua.

Ezjakintasun handia dago, gaixo psikikoen eta hauen senideen artean.

Lan merkatu arruntean sartzeko arazoak dituzte, babesik ez dute.

Gaixo psikikoak tabu dira oraindik. Gaixo psikikoak diskriminatuak daude gizartean.

Gaixotasunaren ezaugarriengatik integrazio enpresen estandarretatik kanpo daude, ez baitira produktiboak ezta lan erregularra egiteko gai.

Gaixo mentalek integrazio arazoak dituzte, baina gizarteko partaide dira.

Sare produktibotik kanpo sentitzen dira.

Legeek ezgaituen inguruan diotena ez da betetzen eta betetzen den kasuetan ez da nahikoa beharrak asetzeko.

Lanerako gaitasuna badute, laguntzarekin.

Gaixo psikikoek euren neurriko lana behar dute, dituzten trebeziak kontuan hartuko dituen.

Ahotsik gabeko pertsonak dira, ez dute herrian zer esanik.

Elkarteak badaude senideentzat. Asistentzialak dira. Oiartzunen ez dago halakorik, hurbilenak Donostian daude.

Emaitza onak lor ditzakete, batez ere monotonoak ez diren eta kanpoan egiten diren lanetan.

Ezinbestekoa da gainbegiraketa (lanean, harremanetan...).

70. hamarkada arte, ohikoa zen gaixoak ingresatzea. Egun, interbentzioa euren inguru naturalean ahalik eta gehien mantentzen da.

Laguntza behar dute bizitzaren kudeaketa orekatua egiteko.

Familiak babesik gabe sentitzen dira. Ardurak dira gaixoak eta sufrimendu egoera larriak sortzen dituzte.

Beraien gizarte eta lan integrazioa bultzatu behar da.

Gehienek bizitza sedentarioa dute.

Ardurak hartzen ikasi behar dute.

Gehienek bizitza normalizatua egiteko gaitasuna dute.

Egunero lana egiten eta arauak errespetatzen ikasi behar dute.



## NONDIK SORTU ZEN ARRAZTALO?

### Hasiera nahasia

2001 urtean Oiartzungo Udalak INEMekin batera lan integraziorako programak jarri zituen martxan. Programen iraupena lau eta sei hilabete artekoa izan zen. Horrela ia sei urtez aritu ziren lanean gaixoak, aldizkako lan kontratuekin. Lan hilabeteak eta langabezia hilabeteak tartekatzen zituzten. Bai familiek eta baita medikuek ere, lanak pertsona hauengan zuen eragina ezin hobea zela ikusi zuten. Baina eragin hori, lana bukatu eta langabezian geratu bezain laster desagertu egiten zen.

Parte hartzaile guztien iritziz programa horiek egonkortasuna eta jarraipena behar zuten. Hori lortzearren, aurreproiektu bat sortu zen, etorkizunean Ahalbide programa izango zena.

### Ahalbide

Oiartzunen gaixo psikikoen lan integrazioa lortzeko 2008ko maiatzetik 2010eko apirilera Oiartzunen garatu zen programa aitzindaria izan zen. Udaleko ongizate sailak finantzatu eta Oarsoaldeko Garapen Agentziak kudeatu zuen. Gainera, INEM eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak izan zituen. Laguntza medikua eta gizarte arloko laguntza Oiartzungo gizarte zerbitzuek eta eskualdeko Osasun Mentaleko Zentroak eman zuten.

Gaixoen senideok maila pertsonalean eta ondoren

**Programan parte hartu zuten zortzi langileek eta bi arduradunek hiri mantenimenduko lanak egin zituzten (lorazaintza, hiri altzarien manteni-mendua, garbiketa,...).**

Arraztalo Elkartearen bidez programan parte hartu genuen, Osasun Mentaleko Zentroarekin eta Udaleko gizarte zerbitzuekin bilerak eginez. Tarte horretan proposamenak egitea, programa bultzatzea eta babestea eta gure senideen zailtasun pertsonal eta kolektiboak gainditzen laguntzea izan zen gure zeregin nagusia.

Programaren beste ezaugarriak honakoak izan ziren:

- Jarduerak kanpoan eta ingurunearekin kontaktuan egitekoak ziren, langileen gizarte integrazioa lortzeko.
- Parte hartzen zuten langileen soldata hilean 550 eurokoa izan zen, astean 25 orduko lanaldia-gatik. Soldata hori lanaldi osoarengatik 880 euro jasotzearen baliokidea da. Programak

iraun zuen bitartean gutxieneko soltada 600 euro (2008an) eta 624 euro (2010ean) artean egon zen.

- Langileen batezbesteko adina 45 urtekoa zen.

**Eragile guztiek positiboki baloratu zuten programa, onurak begibistakoak zirela aipatu zutelarik.**

- Egunerokotasunak orekatu egin zituen.
- Autoestima igo zitzaien, ardurak hartzeko gai zirela konturatu eta arazoek irtenbidea zutela ikusi zuten.
- Harremanak hobetu zituzten, beraien artean eta inguruko beste pertsonekin. Oiertzuarrek gaixo hauek herrian bazirela ikusi ahal izan zuten.

## Arraztalo Elkarte

Ahalbide programaren garapena ikusirik, gaixoen senideek programan genuen parte hartzea sendotu behar genuela erabaki genuen eta 2009ko irailan elkarte bat sortzeko helburuarekin biltzen hasi ginen. Gure lanak jarraipena izatea nahi genuen. Herriko hainbat gizarte eragileren laguntzaz, elkarteari forma eman genion, estatutuak idatzi

genituen eta Arraztalo Elkarteak 2010eko urtarilaren 10ean Euskadiko Elkarten Erregistroan erregistratzea lortu zuen.



## Ahalbideren bukaera eta Okobi programaren hasiera

2010 urtearen hasieran egindako balorazioan erakunde guztiek programak hobetu eta jarraitu egin behar zuela adostu zuten. Baina inork ez zuen irmoki programa kudeatzen jarraitzeko ardura hartu nahi izan. Osasun sistemak, gizarte zerbitzuek eta lan zerbitzuek pertsona hauek (beste edozein kolektibo bezala) artatzeko betebeharra zuten arren, krisialdi ekonomikoaren aitzakian, gaixoen lan integrazioa erakunde publikoentzat beharrezkoa ez zela erabaki zuten. Ahalbide bertan behera geratu zen 2010eko maiatzetik aurrera.

Gaixoen senideok erabaki horiek kanpotik ikusi genituen, beti izan genuen iritzia emateko aukera, baina gure botoak ez zuen indarrik. Egoera konpontzeko ahaleginetan erakunde publiko-pribatu bat sortzea proposatu genuen.



Erakunde hori Enplegu Zentro Berezi bat izatea nahi genuen. Gaur egun zentro horren estatutuak apal batean gordeta daude garai hobeen zain. Ahalbideren bukaerak eta langabezian geratzeak gaixoengan izan zuen eragina ikusirik (desoreka emozionalak, animo falta, berriz gaixotzeko arriskuak, ...) senideok, zalantza, bilera eta eztabaida askoren ondoren jarraitzea erabaki genuen. Aurrera jarraitzeko Arraztalo Elkarteak Ahalbide programa bere gain hartu eta egokitu egin behar izan zuen. Egokitzapen horretatik Okobi programa sortu zen, Arraztaloren lan integrazioarako ekintzak biltzen dituen programa.



# 2. Proiektuaren egitura

## HASIERAKO EGITURA

Inolako egiturarik gabe hasi ginen. Senide eta gaixo talde bat ginen. Gainera lagunak eta arazoarekin sentsibilizaturik zeuden pertsonak ere bazeuden. Zerbait egiteko asmoa genuen, baina ez genekien oso ondo zer egin edo nora jo. Bakoitzak bere ideiak eta gaixotasun psikikoari buruzko ikuspuntua elkarbanatu zituen.

Aurreneko bilerak Elizalden, herriko eskolan, egin genituen eta bertan proposatu genuen lehen aldiz proiektuari forma emateko beharrezkoa izango zela nolabaiteko egitura juridiko bat sortzea. Horrekin

## GAUR EGUNGO EGITURA

Taldeko abokatu baten laguntzaz irabazi asmorik gabeko elkarte bat sortu genuen, Arraztalo Elkartea. Elkartea irabazi asmorik gabekoa izatea erabaki genuen, eta ez fundazio bat, aurrenekoak lan egiteko askatasun gehiago ematen baitu eta ez baitu inolako ondorio juridikorik elkartea sortu genuenontzat.

Egiten diren ekintza guztiak, bai lan arlokoak baita gizarte arlokoak ere, elkartean bateratuta daude. Ekintza hauen kudeaketa elkartearen izenean egiten da.

Batzarren bidez lan egiten dugu eta ekintza nahiz erabakiak jarduera bakoitzean parte hartu dezaketen pertsonen artean eztabaidatzen dira. Zuzendaritza batzorde bat dago, kontsumo

taldea dinamizatu eta kudeatzeaz arduratzen den talde bat eta elkarteko langileak: langileen arduradunak eta langile-gaixo psikikoak, bakoitza bere lan kontratuarekin. Langileek bakarrik dute soldata. Beste pertsona guztiak, bai zuzendaritza

**Arraztalo Elkartek familiei, interesa duten pertsoneri eta auzolanari esker jarraitzen du martxan.**

batzordekoek, bai kontsumo taldekoek edo baita beste ekintzetan parte hartzen duten guztiak ere ez dute inolako dirurik jasotzen Arraztalotik, eta ez dute inolako kuotarik ordaintzen. Puntu hau oso argi azaltzen da elkartearen estatutuetan.



## ETORKIZUNEKO EGITURA

Gaur egun Oiartzungo Udalarekin eta Oarsoaldea Garapen Agentziarekin elkarlanean gabiltza Enplegu Zentro Berezia sortzeko. Erakunde berri honekin Arraztalo Elkartek lan arloan dituen jardueri egitura sendo bat eman nahi diegu, lan integraziorako programak jarraipena izan dezan.

Horrela Enplegu Zentro Bereziak gaixotasun psikikoa duten oiartzuarren lan integrazioa bermatuko luke eta Arraztalo Elkartek lan jarduerak jarduera psikosozialekin uztartzea ahalbidetu. Gainera ekintza gehiago planteatuko lirateke, hala nola gaixoen gizarte integrazioa eta senideen hurbiltzea nahiz asistentzia bultzatzeko ekintzak.

### Zer da Enplegu Zentro Berezi bat?

Enplegu Zentro Berezi bat erakunde mota bat da eta ezintasuna duten pertsonentzat lanpostuak sortzen ditu.

Administrazioan erregistratu behar da honen onarpena jasotzeko eta lan zerbitzu publikoetatik laguntza jasotzen du: langileen gizarte segurantzaren ordaintzen dute, gutxieneko soldataren %50 ere bai, kudeatzeko laguntzak ematen dituzte, ... Gure kasuan, zentroaren bultzatzaileak Oiartzungo Udala, Oarsoaldeko Garapen Agentzia eta Arraztalo Elkartea izango ginateke.



# 3. Gure lan egiteko ereduak

## ZERGATIK DA ARRAZTALO HORRELAKOA?

Zergatik proposatzen dugu zerbait ezberdina? Zergatik ez erabili gaur egun gaixotasun psikikoa duten pertsonen integrazioa bultzatzeko dauden lan ereduak?

Gure senideekin, gaixo psikikoekin, izan ditugun harremanek irakatsi digute beraien gaixotasunean hobetzeko bizitzen dituzten esperientziak, kontaktuak eta bizipenak ahalik eta gehien baliatu behar direla. Ahalbide programatik gendozen eta programa horretan pertsona askok ahalegin handia egin zuten. Gai ekonomikoak alde batera geratu

ziren, baita produktibitatea eta lehiakortasuna ere. Programaren oinarria pertsonak izan ziren. Zenbakiak baztertu eta sentimenduei garrantzia handiagoa eman zitzaizen, gaixo psikikoak eta senideak lanaren muina zirelarik. Zenbakien eta krisi ekonomikoaren ondorioz, erakundeek norentzat lan egin behar duten

**Txikia dena ederra da,  
xumea dena egin daiteke  
eta gainera beharrezkoa  
da horrela egitea.**

ahaztu zuten, guztiak behea jo zuen eta hutsetik hasi behar izan genuen. Eta ezinezkoa zela ez genekienez, egin egin genuen, dena egiteko zegoela eta dena egin zitekeela jakinik. Eta elkarte txiki batetik, Arraztalotik, eta herri txiki batetik, Oiartzundik, ikusten ari gara txikia dena ederra dela, xumea dena egin daitekeela eta gainera beharrezko dela horrela egitea. Hurbiltasunak gure proiektuaren kalitatea bermatzen duelako.

**Lan eta gizarte integrazioaren kudeaketa hurbila eta herrikoia proposatzen dugu, familien esperientzian eta gaixoen beharretara egokitutako eguneroko lanean oinarritua.**

## ZER EGITEN DUGU ARRAZTALON?

Gaixotasun psikikoa duten pertsonen ikuspuntutik **hiru ildotan lan egiten dugu**

**LAN INTEGRAZIOA**  
Lan integratorako pauso ezberdinetatik pasa ondoren, gaixo psikiko bakoitza lan mundu arruntean integratzen saiatuko gara.

Lan integrazioa nekazaritza lanen bidez lortzen dugu. Baratzetan egiten den lanari esker, sasoiako barazki ekologikoak produzitzen ditugu. Bertan arduradun batek lanaldi osoz eta lau gaixo psikikok lanaldi egokituarekin lan egiten dute. Lanaldi egokitu hori bakoitzaren ahalmenen arabera ezartzen da. Orokorrean 25 ordu lan egiten dituzte astean, goizez. Dena den, baratzetan egiten duten lanaren garrantziaz jabetzen diren heinean, borondatez eta beraien autonomia pertsonala garatuz euren kabuz joaten dira barazkiak ureztatzera edo goizean egindako lana bukatzera.

Hiru baratza eta bi sagasti ditugu eta honi esker egin beharreko lanak mota askotakoak dira, kanpoan egitekoak eta beste pertsonekin kontaktuan. Horregatik ikusi zen hain egoki Okobi programa nekazaritza sektorean kokatzea,

gaixoentzat lan integrazioa bereziki bultzatzen laguntzen duelako.

Lan taldea lau gaixoz eta arduradun batez osatuta egotea denboraren poderioz gaixoentzat hoberena dela ikusi dugu. Arduradunaren formakuntzak, izaerak eta inplikazioak ere garrantzia handia du.



Era berean 5 ordu modu malguan eta lan kargaren arabera lan egitea oso egokia dela frogatu ahal izan dugu, langileek horrela jakinarazi digutelako. Baratzetatik jasotako produktuak eta sagarrekin egindako sagardoa Kontsumo Talde baten bidez banatzen da. Kontsumo Taldea herriko familiek osatzen dute eta astelehenero 18:00etan gaixoei barazki saskiak banatzen dituzte herriko plazan. Lan honek gaixoei harreman sozialak garatzen laguntzen die eta gainera arazoa herritarren begibistan jartzen dugu. Kontsumo Taldeko kideek ordaintzen duten hileroko kuotek langileen soldataren zati bat ordaintzen laguntzen digute. Ekintza hauek egiteko Oiartzungo Udalaren diru laguntza dugu eta gainera ibilgailu bat eta



lokal bat (eskola zaharrak) uzten dizkigu. Lokal horretan aldagelak, makinaria eta sagardoa egiteko erremintak ditugu eta eguraldi txarra egiten duenean beste ekintzak egiteko baliatzen dugu. 2012ko abendutik 2013ko martxora crowdfunding kanpaina bat jarri genuen martxan Goteo Euskadiren bitartez traktore bat erosteko dirua biltzeko. Eta lortu egin genuen! Makinaria gehiago ere lortu dugu Gipuzkoako Aldundiaren eta Hernaniko Udalaren laguntzaz.

Lan aktibitate hau indartu eta beste lan arlo batzuetan hasteko Oiartzungo Udalarekin eta Oarsoaldea Garapen Agentziarekin Enplegu Zentro Berezi bat sortzeko elkarlanean gabilta.

## LAGUNTZA

### PSIKOTERAPEUTIKOA

**Laguntza psikoterapeutikoa erabiliz gaixotasun psikikoa duten pertsonen beraien familietan, gizartean eta lan munduan integratzeko baliabideak eman nahi dizkiegu.**

Gaixo psikikoekin egiten den lana ez da erraza. Familientzat eta haien inguruan egunero dauden pertsonentzat gainkarga emozional izugarria dira. Hau arintzeko, psikologo talde batekin lanean ari gara laguntza terapeutikoa emateko plangintza bat prestatzen:

- Banakako lana baratzetako arduradunarekin: egoerak kudeatzeko baliabideak, erlazioak,...
- Gaixoekin taldeko dinamikak lantzea beraien arteko eta gizarteko beste pertsonekin dituzten



erlazioak garatzeko.

- Familiei laguntza egunerokotasunean bizitzen dituzten egoerak kudeatzeko.

Hilabete eta erdiro taldearen arduraduna Oiartzungo gizarte zerbitzuekin eta Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroko langileekin biltzen da egindakoa baloratu, langile bakoitzaren egoera aztertu eta bildutako bakoitzak jarraitu behar-reko lan ildoak erabakitzeke.

## **GIZARTE INTEGRAZIOA**

**Gizarte integrazioan martxan dauden eta jarri nahi ditugun ekintzen helburua gaixo psikiko bakoitzak gizartean murgiltzeko dituen ahalmenak berreskuratzea da. Bere ingurunean, familian, lagunartean harremanak berreskuratzea lortu nahi dugu.**

Integrazio hau lortzea senideen arazo handienetako bat da. Gaixotasunaren eraginez bere ingurukoekin zituzten harremanak galdu dituzte eta gaixotasunak trebetasun sozialak erabat irentsi ditu. Bestalde, gizarteak berak ikusezin egin ditu, estigmatizatu egin ditu. Gizarte integrazioa hobetzeko ekintza ezberdinak egin ditugu:

- Oiartzungo Gizarte Hezkuntzako ikasle batek ikerketa lan bat egin du gaixo psikikoen gizarte integrazioari buruz, Arraztaloren kasuan oinarrituz. Lan hau abiapuntu izanik,

orain ateratako ondorioetan sakontzen jarraitu nahi dugu.

- Oiartzuarren sentsibilizazioa hobetzeko 2013 urtean zehar hitzaldi-elkarriztea modukoak antolatu ziren gaixotasun psikikoari buruz. Bertan, musu-truk, aditu ezberdinek gizarte laguntzari, psikiatriari, psikologiari eta neurologiari buruz hitz egin zuten. Hitzaldietan izandako ideiak eta eztabaidak abiapuntu izan dira elkartearentzat hau herrian txertatzeko lanean.
- Urtero abuztuan, Oiartzungo jaietan, Arraztalo Elkartek barazki ekologikoen azoka antolatzen du. Gainera, Santo Tomas egunean barazki postua jartzen dugu eta elkarteko kideek egindako gozokiak saltzen ditugu.
- Elkartearen ezagutarazteko eta herritarren sentsibilizazioa lortzeko beste momentu garrantzitsu bat crowdfunding kanpaina izan zen. Traktorea erosteko kanpaina Arraztalo Elkarteko kideek eta herritarrek orokorrean erakutsi zuten eskuzabaltasunak txundituta utzi gintuen.
- Ekintza hauek guztiak lan ildo berriak aztertzeke balio digute eta aukera horiek baliatu behar ditugu.

Arraztalo Elkarteak Oiartzungo parrokiak utzitako lokal bati esker, egoitza sozial txukun bat antolatu ahal izan du, elkarteko partaideen laguntzaz altzariz jantzia eta beti ere ezer ordaindu gabe. Oiartzungo Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari esker elkarteak behar duen material informatikoa erosi dugu.



## ALIA NTZAK

Arraztalo Elkarteak Okobi programa du martxan. Programa horretan planteatutako ekintza batzuk martxan daude eta beste batzuk azterketa eta diseinu prozesuan. Lan honetan **Oiartzungo gizarte zerbitzuek** parte hartzen dute eta beraien lehenasuna da proiektua bultzatu eta jarraipena ematea.

Honako entitateak ere laguntzaile dira: **Oarsoaldea Garapen Agentziako Enplegu zerbitzua, Oiartzungo Enplegu Zerbitzua eta Gobernu Taldea (Gizarte-Ongizateko zinegotziaren bitartez)**. Bestalde Errenteriako **Osasun Mentaleko Zentroan** gaixo psikiko hauen jarraipen eta tratamendua bideratzen dute. Bertako profesionalek beharrezkotzat jotzen dute modu honetako proiektuak sortu eta garatzea.

**LANBIDEk** eta **KUTXA- GIZARTEAk** une jakinetan ekonomikoki lagundu dute proiektuan. Gaur egun krisiak lankidetzara hori erabat eten du. Berreskuratzen saiatuko gara.

Proiektua sortzeko eta bideratzeko garaian, gaixo psikikoekin lan egiten duen **Segi Hiru S.L.** Enplegu-Zentro Berezien aholkularitza ere jaso da.


**Horrez gain, herriko pertsonak beraien laguntza desinteresatua eskaintzen diote elkarteari. Batzuetan tresnak, materiala eta lur-sailak uzten. Besteetan berriz, oiartzuarren denbora eta inplikazioa izaten dira proiektuaren laguntzaile nabarmenenak.**

# 3.ARRAZTALOK OKOBI PROGRAMAN ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK

## PROIEKTUAREN HARTZAILEAK, LAN ARLOA

Gaixotasun psikikoaren arazoa oso ezberdina da kasuaren arabera, baina orokorrean gaixo psikikoek eta hauen senideek bizitzen dituzten egoerak zailak eta kudeaketa korapilatsukoak dira. Gaixoak askotan psikiatrikotan egoten dira eta beste batzuk ez dute ezta beraien eguneroko bizitza kudeatzeko ahalmenik ere. Krisi egoera gogorrek jasaten dituzte: motibazio falta, animo falta, eguneroko bizitza kontrolatzeko gaitasun eza, botikak hartu nahi ez izatea...

Arraztalo Elkarteak ezaugarri guzti hauek hartzen ditu kontuan hartzaileen profila osatzeko garaian.



## BARAZKI EKOLOGIKOEN EKOIZPENA, SAGARDOA ETA KONTSUMO TALDEA

### HELBURUAK

- Sasoiko barazkiak eta barazki-landareak ekoiztea.
- Bertako produktuen eta garaian-garaikoen kontsumoa bultzatzea.
- Ekoizpen ekologikoaren bidez, bertako ohiko barietateen haziak erabiltzea, balio erantsia duten produktuak lortzeko.
- Sagar landare mota desberdinak landatzea eta mantenimendu lanak burutzea.
- Sagardo naturala egin eta saltzea.
- Gaixotasun psikikoa duten pertsonentzat lurra lantzeko tekniken ezagutza eta lan-munduko integrazioa ekarriko dituen lanpostuak sortzea.
- Kontsumo-taldeen sorrera bultzatzea.
- Kontsumo taldeko partaideek (herritarrek) zuzenean ekoizleari (gaixo psikikoei) produktuak erostea.
- Gaixo psikikoen eta herritarren arteko hartu-emanak sortu eta indartzea.

### LAN AKTIBITATEAK

#### Baratzak eta sagardo naturala

- Modu naturalean baratzetan lanean aritzen gara, ongarrri kimikorik gabe, baliabide naturalak bakarrik erabiliz: gorotza, hondarra, karea,...
- Manipulatu gabeko hazietatik barazkiak ekoizten ditugu.
- Sasoian sasoiko barazkiak ekoizten ditugu: porruak, tomateak, letxugak, azak, azaloreak, tipulak...
- Herritar talde bati barazkien asteroko zuzeneko salmenta egiten diogu.
- Bertako sagarrondoan landaketa eta mantenua sagardo natural eta ekologikoa egiteko erabiltzen dugu.

**Baratzak prestatzeko lurra landu, negutegi irekien egiturak prestatu, ureztatze sistema antolatu eta eraiki eta barazkien landaketa kudeatu dugu.**



## ZERBITZU AKTIBITATEAK

### Kontsumo taldea

Kontsumo Taldeari esker Arraztalok asteroko ekoizpena saltzeko aukera du. Gainera, modu honetan gaixo psikikoen gizarte integrazioa lortzen da. Taldea 30 familiek osatzen dute eta guztiek astero barazki saskia jasotzeko konpromisoa hartu dute. Horrela, barazketako langileen konpromisoa da astelehenero barazkiak prest edukitzea 30 familia horientzat. Egiten duten lanak helburu zehatz bat du.

Kontsumo Taldean bi pertsonak asteroko banaketa kudeatzen dute, beste batek diru kontuak egiten ditu eta langileek barazkiak ekoiztu, jaso, garbitu eta banaketa puntura eramaten dituzte. Kontsumo Taldeko partaide bakoitzak hileroko kuota ordaintzen du. Saskian datozen produktuak ezin dira aukeratu, hau da, sasoiak dauden barazkiak jasotzen dira.

Era berean, kontsumo taldea gizarte integrazioan interesa duten pertsonen bilgunea izateaz gain, ekologian eta bertako produktuetan interesa



duteren bilgunea izatea ere gustatuko litzaiguke. Hori lortzearren, barazki saskiaz gain bertako beste produktuak erosteko aukera dago, hala nola arrautzak, gazta, ezitia edo ardi esnea. Oiartzungo bi nekazari banaketan egoten dira aurreko astean eskatutako produktuak banatzen.

Orain arte kontsumo taldea Arraztalo Elkarteko partaideek bultzatutako ekimena izan da, baina jarduera honen jarraipen logikoa kudeaketa parte hartzailea egitearena da. Taldearen kudeaketa, eskaerak eta bilerak antolatzea kontsumo taldeko partaideek egin beharko dute txandaka eta nekazariak produktuari buruzko iritziak jaso ahal izango dituzte.



### LANGILEAK

- Baratzak prestatzeko, barazkiak landatzeko, garbitzeko, jasotzeko eta banatzeko lau langile-gaixo psikiko.
- Baratzek kudeatzeko arduradun bat, lanak zuzendu, barazkiak landatzeko oinarrizko ideiak irakatsi, barazkiak zaindu eta lanaren jarraipena egiten duena.

## BALIABIDEAK

- 1.200 m<sup>2</sup>-ko lursaila Arraztalo Elkarteko kide batek utzia Altzibar auzoan.
- 4.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila Oiartzungo familia batek utzia Elizalde auzoan.
- 3.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila Oiartzungo beste familia batek utzia Ergoien auzoan.
- 400 m<sup>2</sup>-ko hiru negutegi ireki, bi Altzibar auzoan eta bestea Elizalden.
- Oiartzungo Udalak utzitako 12.000 m<sup>2</sup>-ko bi lursail Lezoko mugan. Bertan 200 sagarrondo daude sagardo naturala egiteko. Sagarrondoak Gipuzkoako Foru Aldundiko nekazaritza sailak emandakoak dira.
- Lursail guztiak lagapen kontratuak dituzte eta Nekazaritza Ganberan nahiz Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluan (ENEEK) erregistraturik daude.
- Oiartzungo Udalak material ugari eman digu baratzetako lana egiteko, hala nola, barazkiak gordetzeko, saskiak prestatzeko eta sagardoa egiteko lokala eta langileak garraiatzeko furgoneta.

**Eta bukatzeko, ez genituzke txosten honen protagonistak hitzik gabe utzi nahi. Hona hemen Arraztaloko langile bati egindako elkar-rizketaren zati batzuk:**

- Gaixotasun ulertzeko moduari buruz galdetuta: *“putakeria bat da, bizitza erabat aldatzen zaizu. Ez dakizu zer gertatzen zaizun eta beldur zara.”*
- Arraztalok egiten duen oinarrizko eta onurazko lanari buruz galdetuta: *“Arraztalok poza ekarri dit, ateak ireki eta bizitza aldatu zait”*
- Beste pertsonekin dituen harremani buruz galdetuta: *“gaixotasunaren hasieran harremani beldur nien, ez nuen inorekin hitz egin nahi eta ez nintzen etxetik ateratzen. Orain, lanari esker, harreman gehiago ditut jendaurreko lana egiten dudalako, baina lanetik atera ondoren neure burua itxi egiten dut. Nire eremu propioan lasaiago nago”*

# HITZATZEA

10 urte pasa dira Oiartzunen gaixotasun psikikoa duten pertsonen arazoari irtenbide bat bilatzen hasi ginenetik.

7 urte pasa dira Ahalbide programak forma hartu eta gure senideei laguntzeko beste aukera bat zegoela ikusi genuenetik.

4 urte baino gehiago pasa dira gaixotasun psikikoa duten oiartzuarren senideok eta lagunek aurrera jarraitu eta Arraztalo Elkartea sortu genuenetik.

4 urte baino gehiago pasa dira, genuen baratza bakarra etxebizitzak egiteko kendu behar izan genuenetik. Baina beste baratza bat prestatu genuen, eta beste bat, eta beste bat gehiago eta bi sagasti 200 sagarrondorekin. Eta barazkiak eta sagardoa ekoizten ditugu. Eta kontsumo taldea sortu zen, eta azoketan parte hartu genuen. Oiartzungo gaixo psikikoak herrian bere lekua aurkitzen hasi ziren, pixkanaka eta txiki, xume mantenduz, baina egin zitekeela ikusi genuen. Eta horretan dihardugu, ezinezkoa zela ez genekienez, egin genuen eta egiten dugu.



17 posta kutxa, 20180 Oiartzun

Egoitza soziala: Martintxo Kalea 1, Altzibar auzoa. 20180 Oiartzun

Tailerrak eta biltegia: Larrezabaleta 15. Arragua auzoa. 20180 Oiartzun.

arraztalo@gmail.com

[www.rraztaloelkartea.wordpress.com](http://www.rraztaloelkartea.wordpress.com)

